

KANBO HERRIA

Pirinio Atlantikoetako departamendua

2022ko OTSAILAREN 28ko ERABAKIEN AKTA

Bi mila eta hogeita biko otsailaren hogeita zortzigarren egunean biltzera deiturik, herriko biltzarra Christian DEVÈZE, jaun auzapezaren lehendakaritzapean bildu da. Biltzarra arratseko 7etan hasi da.

Hor ziren: Christian Devèze auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal (20:00etatik goiti), Robert Poulou, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Corinne Othatceguy (20:00ak arte), Jean-Paul Eyherachar, Isabelle Ayerbe, Jean-François Lacosta, Maud Gastigard, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Argitxu Hiriart-Urruty, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Marie Aristizabal (20:00ak arte), Christiane Hargain-Despéries, ordeak, Peio Etcheleku, Corinne Othatceguy (20:00etatik goiti), Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus, Carmen Gonzalez, Philippe Bacardatz, herri biltzarkideak.

Ahalordeak: Marie Aristizabal-ek Yolande Huguenard-i (20:00ak arte), Christiane Hargain-Despéries-k Jean-Noël Magis-i, Peio Etcheleku-k Jean-François Lacosta-ri, Corinne Othatceguy-k Eliane Aizpuru-ri (20:00tik goiti), Nicole Amestoy-ek Véronique Cadepond-Larronde-ri, Jean-Jacques Lassus-ek Vincent Goytino-ri, Carmen Gonzalez-ek Maud Gastigard-i, Philippe Bacardatz-ek Amaia Beyrie-ri.

Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Jean-Paul Eyherachar hautatu dute saioko idazkari izateko.

Auzapez jaunak proposatzen du Eliane Aizpuru lehen auzapez ordea izan dadila saioko presidente 2021eko administrazio kontuen azterketarako, hots 15 eta 16. puntuentzat.

Aho batez onartua.

01 – Bideo-babesa: behin betiko aitzin-proiektua (Auzapezak aurkeztua).

Herri biltzarrak, 2021eko martxoaren 29ko erabakiz, onartu zuen hiriko bideo-babes sistema baten ezartzea, eremu publikoaren segurtasuna eta lasaitasuna bermatzeko helburuarekin. Xedapen tekniko eta kameraren kokapena hautatzeko laguntza teknikoa eskatu du.

Uztaritzeko Jendarmeria taldearekin harremanetan, lurraldeko delinkuentziaren azterketa egin da, zeinak azken urteotan oieskeria eta gaiztakeria ekintza maila altua erakusten duen.

Biztanleria garatzen ari den nahasmendu eta intseguritate sentipenaz at, kalte horiek ordezte edo konpontze kargak suposatzen dituzte, zerbitzu teknikoaren eskuhartzearekin, gehienetan urgentzian ekipamenduak segurtatu behar baitira eta zerbitzu publikoaren jarraikortasuna baldintza hoberenetan bermatu.

Ondorioz, Herriak intseguritatearen eta delinkuentziaren kontrako politika aktibo batean sartu nahi du. Politika horrek orekatua izateko xedea du, prebentzioa, hezkuntza, bitartekaritza eta disuasioarekin.

Horretarako, Jendarmeriarekin adosturik, hemezortzi kamera ezarri beharko lirateke hamabi gunetan. Inbertsioaren aitzin-aurrekontua 190 000 €koa da, zergaz kanpo, eta Frantziako Delinkuentziaren Prebentziorako Ministerio arteko Funtsaren dirulaguntza ukan dezake.

Herri Biltzarkideei eskatu die honakoak onartzea:

- Herriko eremu publikoaren segurtasuna eta lasaitasun publikoa bermatzeko helburua duen bideo-babes sistema baten ezartzea,
- zehaztu den bideo-babes sistemaren instalazioa, aurreikusten den finantzazio plana, eta Auzapezari baimena ematea instalazio horri loturiko izapideen izenpetzeko eta bereziki horretarako deialdi publikoen abiatzeko,
- bideo-babesaren karga etikoa.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aiçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

02 – 2021-2022 ikasturterako goi mailako ikasketen egiteko herriko beka esleipena (Aristizabal andereak aurkeztua).

Herriko biltzarrari eskatu dio herriko 20 beka horien esleipena bozkatzea, orotara 9 672 € heldu direlarik 2021-2022 ikasturterako.

Aho batez onartua.

03 – Turismo Bulegoari dirulaguntza aurretiaz ematea (Irastorza jaunak aurkeztua).

Herri biltzarrari eskatu dio Turismo Bulegoaren aldeko 100 000 €ko dirulaguntza aurretiaz ematearen alde bozkatzea, 2022ko hasierako aurrekontua bozkatu artean.

Aho batez onartua.

04 – Oihanburua bideko lur sail baten eskuratzea: hipotekaren altxatzea (Magis jaunak aurkeztua).

2021eko uztailaren 5eko erabakiz, Herri biltzarrak 24m²ko AI 190 eta 192 lur sailen zati bat eskuratzea erabaki zuen, Oihanburua bidea zabaltzeko xedearekin, lanak Herriaren gain izanik. Baina lur sail horiek hipoteka badute, eta horren altxatzeko 800 € ordaindu behar da.

Herri biltzarrari eskatu dio:

- 24 m²ko AL 190 eta 192 lur sailen hipotekaren altxatzeko gastuen onartzea,
- Auzapezari baimena ematea ekintza horretarako izapide guztiak egin ditzan.

Gehiengoz onartua.

Ez dute bozkan parte hartu: Jean-François Lacosta eta Peio Etcheleku.

Kontra bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aiçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

05 – Burdin bideko lur sail baten eskuratzea: hipotekaren altxatzea (Magis jaunak aurkeztua).

2019ko urriaren 28ko erabakiz, Herri biltzarrak Burdin bidearen zabaltzeko 17m²ko BM 22 lur sailaren erostea onartu zuen euro sinbolikoaren truke. Baina lur sail horrek hipoteka badu, eta horren altxatzeko 900 € ordaindu behar da.

Herri biltzarrari eskatu dio:

- 17 m²ko BM 22 lur sailaren hipotekaren altxatzeko gastuen onartzea,
- Auzapezari baimena ematea ekintza horretarako izapide guztiak egin ditzan.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aiçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

06– 7 Haritzen bideko lur baten eskuratzearen erregularizazioa eta eremu publikora pasatzea (Magis jaunak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu zaio 7 Haritzen bideko obren egiteko baliatu den 14m²ko katastroko A 2174 lur saila euro sinbolikoan erostea, eta sail hori eremu publikora pasatzea onartzea.

Aho batez onartua.

07 – Oihanburua bideko lur sail baten eskuratzea eta eremu publikora pasatzea (Magis jaunak aurkeztua).

Herri Biltzarrari proposatu dio:

- 388m²ko katastroko AH n°00700 lur sailaren eskuratzea 500 €ren truke onartzea, Oihanburuko bidearen zabaltzeko,
- lur sail hori eremu publikora pasatzea onartzea.

Gehiengoz onartua.

Ez dute bozkan parte hartu: Jean-François Lacosta eta Peio Etcheleku.

Kontra bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

08 – Legezketasun kontrola jasan behar duten agirien teletransmisio hitzarmenari emendakina (Auzapezak aurkeztua).

Herri biltzarrari eskatu dio legezketasun kontrola jasan behar duten agirien teletransmisio hitzarmenaren emendakinari buruzko erabakia hartzea, hirigintza agiriak modu digitalean igortzeko, eta auzapezari baimena ematea hitzarmen horren emendakina izenpetzeko.

Aho batez onartua.

09 – APGL: Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoa: herri arteko errepede, sare eta antolamendu zerbitzuaren esku hartzeendako hitzarmena (Magis jaunak aurkeztua).

Biltzarkideei proposatu die Auzapezari baimena ematea APGL-rekin hitzarmen baten izenpetzeko laguntza tekniko eta administratibo batentzako, Makeako bideko antolamendu proiektu batentzako, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera.

Zerbitzu horren egun erdiko prezioa 278 €koa da, hots orotara 6 950 €.

Aho batez onartua.

10 – Langileria: enplegu baten sortzea (Auzapezak aurkeztua).

Herri biltzarrari eskatu dio, 2022ko apirilaren 1etik goiti hasiko den errepede eta eremu publikoaren garbitzeko denbora osoko (28/35en) enplegu bat sortzearen alde bozkatzea.

Gehiengoz onartua.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak kontra bozkatu du.

Abstenitu direnak: Philippe Bacardatz, Amaia Beyrie, Alain Boscq.

11 – Langileria: zerbitzu teknikoekoen guardia erregimena (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu dio zerbitzu teknikoekoen guardia erregimenaren antolaketa onestea, azalpen ohar sintetikoan azaldua denaren arabera.

Aho batez onartua.

12 – 2021eko eskuratze eta esku uzteen bilana (Auzapezak aurkeztua).

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2241-1 artikuluaaren arabera, herri biltzarrari eskatu dio 2021ean herriko lur eremuan, izan aurrekontu nagusian nola hilobi eta kolunbarioenean, egin eskuratze eta esku uzteen bilana onestea, urtero herri biltzarrari aurkezten zaiona eta azalpen ohar sintetikoan zehaztua den bezala .

Aho batez onartua.

13 – Aurrekontu nagusiko 2021eko kudeaketa kontuen bozkatzea (Aizpuru andereak aurkeztua).

Herri biltzarrari eskatzen dio aurrekontu nagusiko 2021eko kudeaketa kontuen onartzea. Herriko hartzaileak egin dituen kudeaketa kontu hauek 2021eko urtarrilaren 1 eta abenduaren 31 artean egin diren eragiketak erakusten dituzte, egun osagarriarenak barne izanik, eta 2021eko administrazio kontuekin osoki bat egiten dute.

Aho batez onartua.

14 – Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu nagusiko 2021eko kudeaketa kontuen bozkatzea (Aizpuru andereak aurkeztua)..

Herri biltzarkideei eskatu zaie hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiko 2021eko kudeaketa kontuak onartzea. Herriko hartzaileak egin dituen kudeaketa kontu hauek 2021eko urtarrilaren 1 eta abenduaren 31 artean egin diren eragiketak erakusten dituzte, egun osagarriarenak barne izanik, eta 2021eko administrazio kontuekin osoki bat egiten dute.

Aho batez onartua.

15 – Aurrekontu nagusiko 2021eko administrazio kontuen bozkatzea (Aizpuru andereak aurkeztua).

Aizpuru andereak lehendakaritza harturik, Auzapeza gelatik atera da.

Herri biltzarkideei eskatu zaie 2021eko aurrekontu nagusiko administrazio kontuak onartzea, funtzionamendu sailean 1 184 158,76 €ko etekin positibo batekin eta inbertsio sailean 229 998,66 €ko emaitza negatibo batekin, orotara 954 160,10 €ko soberakin batekin bukatzen delarik.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aiçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Lilian Hirigoyen.

16 – Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiko 2021eko administrazio kontuen bozkatzea (Aizpuru andereak aurkeztua)..

Herri biltzarkideei eskatu zaie funtzionamendu saila baizik ez duen hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiko 2021eko administrazio kontuen onartzea, 27 442,56 €ko soberakin batekin.

Aho batez onartua.

Auzapeza gelara sartu da.

17 – 2021eko emaitzen esleipena (Aizpuru andereak aurkeztua).

2021eko administrazio kontuak onartu-eta, herri biltzarrak funtzionamenduko emaitzaren esleipena onartu behar du, honako proposamenarekin:

- Aurrekontu nagusia:
 - ✓ 2021eko aurrekontu nagusiko funtzionamendu ataleko 1 184 158,76€ko emaitza positiboa honela banatzea: 1 000 000,00 € (1068 artikulua) inbertsio sartzetara eta 184 158,76 € funtzionamendu sartzetara, 2022ko hasierako aurrekontuan.
 - ✓ Inbertsio ataleko 2021eko defizita (229 998,66 €) inbertsio gastuetara (001 artikulua) dagokion 2022ko hasierako aurrekontuan.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aiçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Lilian Hirigoyen.

- Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiari dagokionez:
 - ✓ 2021eko hilobi eta kolunbarioen aurrekontu gehigarriko 27 442,56€ko emaitza positiboa 2022ko hasierako aurrekontuko funtzionamendu sartzetara (002 artikulua).

Aho batez onartua.

Auzapezaren erabakien komunikazioa (Auzapezak aurkeztua).

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, Auzapezak 2020ko ekainaren 11ko Herri Biltzarrak onartu dizkion eskumen delegazioen esparruan hartu dituen erabakien berri eman dio biltzarrari, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua den bezala.

Solasgai guztiak landurik, saioa 22:30ean bukatu da.